

## Balio proposamena

KTK enpresako batxilergoko lehen mailako ikasleak gara. Gure izenak Naroa, June, Olaia eta Urko dira eta gizartea hobetzeko konpromisoa dugu, eta bururatu zaigun ideia honako hau da:

Afrikako ume behartsuentzat pentsatuta dagoen proiektu bat da. Enpresa nazioartekoa izango da; hasieran Afrikan zentratuko gara, baina etorkizunean beste hainbat lurraldetara zabaltzea posible izango da.

Sortuko dugun enpresa barnetegi moduko bat izango da; horrela, umeek barnetegian bertan egonaldia izango dute denbora jakin batez. Denbora horretan, haien bizitza aurrera eramateko aukerak eta aholkuak eskainiko dizkiegu.

Barnetegiaren hasierako gaitasuna Afrikako zonalde desberdinetako 100-200 haur eta nerabe izango da. Parte-hartzaileen aukeraketa honela egingo da: Afrikako hamar zonaldetara joango gara, eta zonalde bakoitzetik hamar haur edo nerabe inguru aukeratuko ditugu. Aukeratutako haurren artean, egoera okerrenean dauden hiru edo bost haur sartuko dira.

Bertan, ikasteaz gain, egunean zehar hainbat ekintza egingo dituzte, hala nola, fruituak eta barazkiak landatu, hautazko hizkuntzak ikasi edo elkarrekin jolastu.

Haur txikienek haurreskola edo lehen hezkuntzako ikasketak egiteko aukera izango dute; 12 urtetik gorako nerabeek bigarren hezkuntza egin ahal izango dute, eta 16 urtetik gorakoek, erdi mailako eta goi mailako graduak egiteko aukera izango dute. Haur guztiek, hiru hilabete behin, haien familiak bisitatzeko aukera izango dute.

**Gure produktuen ezaugarriak honako hauek dira:**

**Nobedadea:** Gure ideia berritzailea da, merkatuan honelako negozioirik ez dago.

**Prestazioak:** Lo egiteko egoitza bat, jangela bat, negutegi bat, patio bat, ludoteka bat...

**Pertsonalizazioa:** Barnetegia bera ezin da pertsonalizatu baina enpresa ume bakoitzaren beharretara egokituko da egingo dituzten ekintzak aukeratzean eta haien logelak apaintzean.

**Prezioa:** Barnetegian izena besterik ez da eman behar; bertan dauden haurrentzat ez du kostu ekonomikorik suposatuko, gobernuen dirulaguntzarekin eta egingo ditugun aliantzekin aterako dugu dirua hu aurrera eramateko.

**Diseinua:** Gune desberdinetan antolatuta egongo da: gelak, jangela, ludoteka, logelak, negutegia, komunak, kanpoko patioa, liburutegia, sukaldeak...

**Azkartasuna:** Barnetegian arazo edo zailtasunen bat aurkitzen badugu, azkar konpontzeko prest egongo gara.

**Eskuragarritasuna:** Edozeinek ezin izango du barnetegian izena eman; soilik behar handia duten umeek izango dute aukera. KTK enpresak aukeratuko ditu haurrak. Aukeraketa hau egiteko, umeen baldintzen arabera egingo dugu, hau da, hartzen ditugun umeen %40a izango da baldintza okerrenetan daudenak eta beste %60 zozketa baten bidez egingo dugu.